

"Croqueta y Presumida" 2016ko Gipuzkoako Merkataritza Enpresa

- *Gipuzkoako Bazkondeak **Zarautzeko** "Croqueta y Presumida" 2016ko Gipuzkoako Merkataritza Enpresa izendatu du bere kudeaketa egokiagatik, enplegua sortzeagatik eta ingurunearekin daukan konpromisoarengatik.*
- *"10 bitxiak" izendapenaren barruan Gipuzkoako hamar merkataritza enpresa esanguratsuenak saritu dira. Eskualde bakoitzeko merkatariek aukeratu dituzte hamar merkataritza hauek.*
- *Sari banaketa ekitaldia gaur gauean burutu da Gipuzkoako Bazkundeko egoitzan eta bertan Markel Olano, Gipuzkoako Diputatu Nagusia izan da. Ekitaldia Kutxabank-ek eta Euskaltel-ek babestu dute.*

Donostia - 2016ko Azaroaren 25a - Zarautzeko **Croqueta y Presumida** enpresa komertzialak 2016ko Gipuzkoako Merkataritza Enpresa saria eskuratu du. Saria Gipuzkoako Bazkondeak banatu dituen Gipuzkoar Merkataritza Enpresa Sarien XXIV. edizioan jaso du, bertan Markel Olano, Gipuzkoako Diputatu Nagusia izan da. Sari banaketa ekitaldia **Kutxabankek** eta **Euskaltelek** babestu dute eta Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Bulego Teknikoen laguntza izan du.

Croqueta y Presumidak 2016ko Gipuzkoako Merkataritza Enpresa saria jaso du bere kudeaketa egokiagatik, enplegua sortzeagatik eta ingurunearekin duen konpromisoagatik. Barne kudeaketa prozesuetan ezarritako teknologiak, interneten duten presentzia eta posizionamendua eta inguruko merkataritza dinamizazioarekiko duten inplikazioa ere aintzat hartu dira enpresa saritzeko orduan.

Croqueta y Presumida 2014ko azaroan sortu zen, nahiz eta bere jatorria ezagutzeko Gesalagaren historiara jo behar dugun, handik baidator enpresa hau. Gesalaga familia enpresa, José Cruz Gesalagak eta Arantxa Aizpuruak sortu zuten 1978an Zarautzen. Bi urte beranduago euren baserriaren izena, Otzarreta izena zuen lehen harategia ireki zuten (gaur egun 6 harategi dituzte). Larogeitahamargarren hamarkada hasieran Gesalaga anaiak eta Gesalaga sortzaileen seme-alabek txahal urrixen hazkuntzarekin hasi ziren eta 2000. urtean, 500 metro karratuko lehen lantegia inaugurati zuten, harategietan eskaintzen zituzten aurrez prestatutako jakiak garatzeko eta aukera zabaltzeko asmoarekin. 2013an berriz, sistema modernoan, seguruenak eta eraginkorrenak izango dituen instalakuntza berria eraiki zuten, bertan dastaketarako eta frogetarako bakarrik erabiliko den I+G+B sukalde bat ezartzen delarik. Croqueta y Presumidaren idea urte hartan bertan sortu zen, gastronomia merkatuan produktu ezberdinak (ostrak, gaztak, gozoak...) eskaintzen zituzten salmenta puntu espezializatu geroz eta gehiago sortzen ari zirela ohartu zirenean. Hau kontutan izan da eta kroketa espainian gehien kontsumitzen den bigarren pintxoak dela jakinez bezeroarengana zuzenean iristeko aukera ikusi zuten horretarako dendak sortuz eta frankizia modelu berri bat sortuz.

Dendak ireki zituztenetik, 2014 urtetik, 80 lanpostu sortu dituzte eta estatu guztian zehar 30 kroketa denda dituzte, nahiz eta Zarautzeko lantegia kroketak egiteko leku bakar bezala izaten jarraitzen duten kroketek etxeko kroketen izaera galdu ez dezaten.

Gipuzkoako hamar merkataritza enpresa nabarmenenak

Gipuzkoako Bazkondeak Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Bulego Teknikoekin egin du lan, beste behin ere, sariak Gipuzkoa osora gerturatzeko helburuarekin. Sariak partehartzaileagoak eta esanguratsuagoak bihurtuz. **Gipuzkoako sariak.**

Helburu hau argi eta garbi islatzen da "10 bitxiak" sarian, eskualde bereko merkatariek direlako Gipuzkoako 10 merkataritza enpresa nabarmenenak aukeratu dituztenak, lurraldeko merkataritza bitxien mapa sortuz.

Aurten saria Gipuzkoako merkataritzako sektore guztietara zabaldu da, eta ondorengo hauek dira Gipuzkoako merkatariek saritu dituzten dendak: Deba Garaia eskualdekoek **Oñatiko Maibi Dekorazioa eta Ehungintza** saritu dute. Urola Garaikoek **Zumarragako Josune janari denda**. Debarrena eskualdekoek **Mendaroko Chocolates de Mendaro Saint-Gerons** txokolate denda eta Bidasoaldekoek **Irungo ai lof Ilu Atelier** saritu dute, **Donostian Zugasti jantziak** saritu duten bitartean. Donostialdean berriz, **Hernaniko Ibaimendi Kirolak** saritu dute eta Goierri aldean **Beasaingo Xalo**. Oarsoaldea eskualdean **Errenteriako Bitxi Kolore** saritu dute eta Tolosaldea eskualdekoek **Tolosako Guki Ekodenda**. Urola eskualdekoek, azkenik, **Azpeitiako Kimu bat** saritu dute.

Eskualdeko merkataritzaren ezaugarri diren balore, irudi eta prestigioa adierazten dutelako saritu dituzte merkatariek hauek guztiak "10 bitxiak" sariarekin.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347